

LA DOMINATION MASCULINE

Pierre Bourdieu
Paris, Seuil, 1998

I.

Gaur egun Frantzian ezagunen eta ospetsuen egin den soziologoaren lan bat dugu aipagai. Zergatik dakargun orain gure sailera, duela hiru urte argitaraturiko liburu bat? Gure aukerako soziologoa gertakizun bihurtu delako film bat dela medio: Pierre Carles-ek zuzendutako "La sociologie est un sport de combat". Orduan, aitzakiaz baliatzen gara bere obra zabal eta sakonetik garrantzi handikoa den zerbitu gure aldizkariaren irakurleei aurkezteko. Biarnoko herrixka batean sortua den soziologoa arras gazterik Kabiliara joan zen Frantziak Algeriarekin zuen egoera kolonialaren karietara. Baina, gerra kolonialean, bere antropologo eta soziologo senak eraginda mundu hartaz jabetzen saiatu zen egonaldi dorpe hura eraldatuz. Emaizak liburuetan mamitu zituen: Lehenik, 1958an, *Sociologie de l'Algérie* eta ondotik, 1960an, *Algeria 1960* argitaratu baitzituen, hain zuzen.

Honela giza eta gizarte-zientzien mundura plazaratu zen idazlea, etorkizunean emaitza aberatsez beteko gintuen norbait zen; hots, ez bagenekien ere aitzinean geneukan alor anitz argituko zuen pentsalari bat. Kontuak egiten jarrita gutxienez hogeita hamabost liburu kontatzen ahal dizkiogu gaur egun. Horietariko zenbait nabarmentzekotan, berriz, hara hemen titulu nagusiak: 1964an, J.C. Passeron-ekin lankidetzan, *Les héritiers*; 1984an, *Homo Academicus*; 1992an, *Les Règles de l'art*; 1994an, hainbat

laguntzailerekin osatutako *La Misère du monde* eta abar.

Langintza horrek guztiak Frantziako Irakaskuntzan dagoen erakunde famatuenean, Collège de Francen, alegia, soziologiaren katedra bakarra lortzera eraman zuen. Aldi berean, Ecole des Hautes Études en Sciences Sociales zentroan ikasketen zuzendari ere bada.

II.

Esku artean dugun liburua jarraipen gordeen anamnesian edo memorian egonik ere, galduta dauzkagun aztarren ezagutza egiten saiatzen da. Eta menderapen maskulinoaren deskribatzeak emanen dio hauta teoriko hori lantzeko okasioa. Autoreak gaia bigarren atalean formulatzen badigu ere, guk geuk lizentzia harturik lehen planora dakargu, zeren bere diskurtsoaren hari nagusia inkonsziente historikoaren bila jarduteak eraginda baitago, beste edozein eginkizunen aitzinetik. Inkonsziente historikoa dioenean natura biologiko edo psikologikotik eta baita ere euren propietateetatik jalgitzen den orotatik at dagoena adierazi nahi digu, hots, eraikuntza historiko baten emaitza den hartaz ari da. Sexuen arteko ezberdintasuna, bada, ez dator, besteak beste, psikoanalisiak erakutsi digunez faktore biologiko eta psikologikoen aginduz, aitzitik, bereziki eraikuntza historikoa duen menderakuntza sinbolikotik; eta horrela denez, produktioko baldintza historiko horien eraldaketarekin alda daitekeena da.

Gisa honetan arazoa formulaturik, inkonsziente androzentrikoaren eredu ezarriaren ezagutzak baimentzen duen hainbatean, menderapen maskulinoaz gordea dagoen eraikuntza historiko oro desestaltzen saiatuko da. Baita ere inkonszientearen agerpenetan eskaintzen edo saltzen den oro konprenitzen. Kabiliar gizarteak oposizio edo homologia harremanetan (errituak bereziki) egituraturik dituen errepresentazio eta praktiken ezagutzak ekarri dion ebidentearen sentimendutik errebelazioaren inpresiora joan izanak, menderapen maskulinoaren gaian ere ibilbidea errepika daitekeela uste izatera darama. Bestalde, berehala dio, ezagutza hori egitea ez dela jakintza-mailako lorpen soil bat, aitzitik aldi berean daukagun eta galdua dugun ezagutza baten birjabetza dela; hots, Platonek lehenik, eta Freudek geroago anamnesia deitu izan dutena gertatzen dela. Baina, aldi berean, azpimarratzen digu, anamnesia hori, Platonek uste zuenez, ez dela eduki eidetikora bakarrik mugatzen, ezta ere Freudek zioenez inkonszientearen eraikuntzan dagoen banako prozesura lotzen. Nola batak ala besteak egitura familiar generiko eta unibertsaleko elementutzat kontenplatuak zutena bere konposizioan dagoen alor soziala deskontsideratuaz baztertzetik igarotzen baitzen. Aitzitik, inkonsziente historikoa aldi berean kolektiboa eta indibiduala izanik, filogenesiz eta ontogenesiz betea legoke, eta ondorioz nola gizonei hala emazteei historia kolektiboaren eta historia indibidualaren bereganaturiko zeinuak inposatzen dizkie, aitzinetik ontzat ematen diren aginduak sistemaren bidez normalizatuz.

Hein berean sexualki berezia eta bereizgarria den gorputzen eraldaketako lana, parte batez iradokitze mimetikoaren bidez betetzen dena, beste

zati batean manu explizitoen bidez eramaten dena, eta baita ere gorputz biologikoaren ikuskarizko eraikuntza sinbolikoaren bidez egina dena, sistematikoki bereziak eta bereizgarriak diren *habitusen* (usantzen) sortzaile litzateke. Gorputz maskulinoaren maskulinotzeak eta gorputz femeninoaren femininotzeak, alimaleko izanez amaiera gabeko eginkizun direnek, eta gaur egun bereziki inoiz baino denbora eta eginahal gehiago eskatzen dutenek, menderapen harremanaren somatizazioa erabakitzen dute, honela hori guztia zeharo naturalizatuz.

Gizonkeriaren hedapena gehien launduz joko sozialetan sartzea (politikan, aferetan, zientzietan, etab.) hobekien hortaratu eta trebatzen duten jarrerara funtsezkoenak gorputzaren heziketaren bidez bideratzen baitira. Argi eta garbi dago lehen hezkuntzak mutilak eta neskak arras desberdinki sustatzen dituela joko sozial horietan sartzera, eta mutiletan anitzez ere gehiago faboratzen dituela *libido dominandi*-ren forma ezberdinak *libido scienti* bezalako libido sozialaren forma puruenetan adierazpen gorenak aurki ditzakeelarik.

III.

Hau horrela ezarrikerik azterketarako lanabes bezala inkonsziente androzentrikoaren sozioanalisi proposatzen digu, inkonsziente horren kategoriak objektibizatzea helburutzat izanik. Beste behin ere Kabiliako gizartean finkatuko da, gaur egun duen tradizio gordearen mailagatik, Mediterraneoko gizarte guztientzat berdina diren ikuskari falonarzisikoa eta kosmologia androzentrikoa ongi baino hobeto ordezkatzuz, gure egitura kognitibo eta sozialak aztertzeko ibilbidean balio handieneko kontsideratzen du eta.

Gizarte kabiliarrarena bezalako unibertso batean sexualitate-ordena ez dela horrela eraikia esanen digu, diferentzia sexualak kosmos oro eratzen duten oposizioen multzoan murgildurik gelditzen baitira. Horrela, atributu eta ekintza sexualak determinazio antropologikoz eta kosmologikoz gainezka daude. Ondorioz, kategoria sexuala bere baitan hartzen badugu, bere esanahi sakona ezagutu gabe gelditzera kondenatuta gaude. Sexualitatea bere baitan eraikitzeak (erotismoan aurkitzen dugularik horren errematea) sozializatutako gorputza, bere mugimenduak eta norabideak topologia sexualean errotzen ditugunez, sexualizaturiko kosmologiaren zentzua galtzera garamatza. Horrela goraka den mugimendu oro maskulinoarekin parekatzen badugu, zakil zutitzea edo ekintza sexualean gaineko tokia hartzea gizonezkoarenak egitera naturalki helduko gara.

Egoera bakartuan arbitrario izanik, maskulino eta femenino aurkaritzaren araberako gauzen eta aktibitateen (sexualak edo beste izan) zatiketak bere behar objektibo edo subjektiboa aurkaritza homologoen sisteman errotzetik ere jasotzen du. Horiatarikoak dira: gora/behera, gaina/azpia, aitzina/gibela, eskuina/ezkerra, arteza/okerra, lehorra/hezea, gogorra/biguna, garratza/geza, argia/iluna, kanpoa (publikoa) / barnea (pribatua). Zenbaitzuentzat gorputz-mugimenduekin parekatzen dira: gora/behera, igoi/jaitsi, kanpoa/barnea, irten/sartu.

Aplikazio unibertzala duten pentsamenduko eskema hauek naturazko diferentziak bezala, objektibitatean errotuak bezala grabatzen dira. Gisa honetan tarreak eta marra bereizgarriak (gorputz-alorrekoak adibidez), itxuraz zeharo naturalak liratekeenak, diferentzien sistema batean inskriba-

tuz, aldi berean esistituarazi eta naturalizarazi egiten dira. Hau horrela izanik, biziki zaila gertatzen da operazio hauen printzipioetan dagoen menderapenezko harreman soziala kontzientzia-mailara jasotzea, indar-harremantatik independente dagoen zentzu harreman-sistemaren aplikazio bikain bezala agertzen baita. Gizarte primitiboetan sistema mitiko-eritualak jokatzen duen rola funtsezkoa da guzti honetan, eta erabat antzekoa da lan-zatiketan eraikitako gizarteetan alor juridikoak daramana: sexuen arteko zatiketa badirudi "gauzen ordenan dagoela", norma dena naturala eta ezinbestekoa dela esaten dugun molde berean konprenituz.

Egitura objektiboen eta kognitiboen artean, izateko eta ezagutzeko formen artean, mundu prozesuaren eta berezik itxaron dezakegunaren artean baterapena emanen da. Esperientzia honek, berriz, mundu soziala eta bere zatiketa arbitrarioak, sozialki eraikitako sexuen arteko zatiketarik hasita gainerako guztiak, naturaltzat, halabeharrezkotzat emanez zilegitasunarekin sagaritzen ditu. Ondorioa setatia da: ordena maskulinoaren indarra justifikaziorik behar ez duen errealtate bihurtzean, ikuskari androzentrikoa neutro bezala inposatuko denez, zilegituko duen diskurtso gauzatzailerik ez du beharrezko izanen. Ordena sozialean oinarriturik dagoen menderapen maskulinoak baiestera joera emanez alimaleko matxina sinboliko bezala funtzionatzen baitu: lanaren zatiketa sexualak, sexu bakoitzari emandako aktibitateen banaketa zorrotzak, tokiak, uneak, lanabesak eta abar izanen ditu. Nola espazioaren hala denboraren egituran ageri da hau guztia. Espazioaren egituran biltzar- eta azoka-tokiak gizonezkoei erreserbaturik alde batetik, eta etxea emaztekiekiztat izen-

datuz bestetik, edo azken honen barnean sukaldea zati maskulinoaren baitako eginen denean, ukuilua, ura eta barazkiak femenino bihurtuz. Denboraren egiturari, berriz, eguna, nekarizta urtea, edo bizitza zikloa, beren haustura-uneekin maskulinoak izanen direnean, ernalketa aldi luzeak, aldiz, femeninoak eginen dira.

Sexuen arteko diferentzia biologikoa, hots, gorputz maskulinoaren eta femeninoaren artekoa, eta guztiaren gainetik, organo sexualen diferentzia anatomikoa, gisa honetan generoen artean, eta bereziki lanaren zatiketa sozialean sozialki eraikitako diferentzien justifikazio natural bezala ager daiteke. Birilitea, bere adiera etikoan bertan, *vir*, *virtus*-aren esentzia bezala, ohore puntu edo ohorearen kontserbazio- edo emendio-printzipio bezala, gutxienez isilka birilitea fisikoari lotuko zaio, eta horrek benetako gizonarengandik espero diren indar sexualaren lekuko bidez (anderegaia desloratuz, haur maskulino ugari eraginez, etabar) frogatuta joan behar du.

Hemendik aterako diren ondorio sozialak adierazgarriak dira, menderatua bere egoeraren onarpena birtute egitera heldu baitaiteke. Izan ere menderapenaren sorkuntzaz datozen eskema hauek menderatuak menderatzaileari onartzen dizkionean, hots, menderatuen pentsamenduak eta hautemateak inposatu zaien menderapen-harremanaren egiturekin adosturik egituratuak direnean, beren ezagutzazko ekintzak, ezinbestez, errekonozimenduzko, menpekotasunezko ekintza bilakatzen dira. Hala ere, errealtatearen eta aplikatuak zaizkion mundu naturalaren prozesuen eta ikuskari-zatiketa printzipioen artean egon litekeen bateragarritasuna hertsiena izanik ere, munduko gauzen zentzuaz, eta bereziki errealtate sexuali dago-

kienez borroka kognitiboa egon liteke. Zenbait objekturi buruzko indeterminazioak interpretazio kontrajarriak izatea baimentzen baitu menderatua inposizio sinbolikoen efektuaren aurka erresistentzia aukera bat eskaintzen zaionez.

IV.

Oro har tradizio antropologikoarekin bat badator gorputzaren definizio soziala onartzean, eta bereziki organo sexuali buruzkoa lan sozialaren emaitza dela baieztean, hori argudiatzeko orduan, gure aipameneko autoreak, kausen eta efektuen arteko harremana inbertitu egiten du, eta horrekin originaltasuna dakarkio ikerketari. Gisa horretan jardunez, ez dela zakila (edo bere gabezia) munduaren ikuskari horren funtsa duena dio; aitzitik, munduaren ikuskari hori dela, zatiketaren arabera maskulino eta femenino genero harremantzailleatan egokiturik egon daitekeena, zakila erakundetzen duena birilitearen sinbolo edo ohorearen erreferentzia puntu eginaz (propioki maskulinoa dena), eta gorputz biologikoen arteko diferentzia egiten dela sexuen arteko diferentziaren funts objektiboa, iherarkizatutako bi esentzia sozial bezala eraikitako generoen zentzuan konprenituz. Biologikoaren eraikuntza arbitrarioa baita, eta bereziki maskulino eta femeninoan bannandutako gorputza, eta batez ere erreproduktzio biologikoaren usantza eta funtzioetan, lan sexualaren zatiketa eta lanaren zatiketa sexuala eta baita kosmos oro ere, ikuskari androzentrikoan itxuratuz naturalizatzen dituena. Soziodizea maskulinoaren indar aparta bi operazio metatsetik eta laburbiltsetik baitator: biologikoa den naturan itsatsiaz menderapenaren harremana zilegitsetik, alegia, nahiz eta hori bera naturalizaturiko eraikuntza sozial bat besterik ez izan.

Eraikuntza sinbolikoaren lana ez da murrizten errepresentazioak (gorputzaren errepresentaziotik hasita) izendatzearen operazio hertsiki kausitzaila bideratzera eta egituratzera, gorputzen aldaketa sakon eta iraunkor batean amaituz gauzatzera doa; hots, gorputzaren, bereziki alor sexualaren usantza zilegituen definizio diferentziatu bat inposatuko duen eraikuntza praktikoa landuz beste generoari dagokion oro pentsatu eta egin daitekeenaren unibertsoatik at jarriaz, gizon birila eta emazte femeninoa diren artefakto soziala lortu arte.

Esistentzia errelazional bat besterik eduki ez eta, genero bietariko bakoitzaren eraikuntza diakritikoa, aldi berean teorikoa eta praktikoa den lanaren emaitza da, zeina aurkako genero sozialki desberdindutako gorputz bezala sortzeko beharrezkoa baita, hots, usantza biril eta ez femenino bezala, edo eta usantza femenino eta ez maskulino bezala hartzeko. Gauzetan inskribatuz gero, laneko zatiketaren errutinetan bezala, erritual kolektibo edo pribatuetan inplikaturiko isilkako manuen bidez inskribatzen baita gorputzetan ere. Eta errituen alorrean erakundeetatik datozenek toki berezia hartzen dute beren izaera ospetsu eta apartekoa dela eta. Honela diskurso mitikoek modu xaloan aitortzen dutena erakunde-errituek modu maltzurragoan eta sinbolikoki anitzez efikazagoan betearazten dute.

Antropologiak irakasten digunez mutilek amarengandik erauziz beren identitate sexuala, birilizazioa baieztatzeko eginkizunean taldearen laguntza eta orientazioa jasotzen dute nonahi, neskak, aldiz, eginbehar horretatik salbuetsiak dira beren amaren jarraipena egiten uzten zaielarik. Hainbat tokitan mutilen ilearen lehen mozketak sinbolizaturik dagoen ekintza da.

Aitak egin behar dio mutilari lehen mozketak.

V.

Bortxa sinbolikoa, emazteek botere-harreman inkorporatuen ondorioz gaitzetsitako ekintzak onarpen ekintza bihurtzeko duten joerari deitzen dio. Hala ere, sinbolikoa dioenean, ez da ulertu behar errealari kontrajarria, eta orduan espirituala litzatekeena. Menderapen-harremanen esperientzia subjektiboan dagoen objektibitatea adierazi nahia da. Gogora dezagun menderatuen menderapen-harremanei dagokienez, menderatzailearen ikuspuntutik eraikitako kategoriak euren buruei aplikatzean dagoen naturalizazio-saiakeraz ari dela. Bortxa-egoera gozo eta ikusezin honen adibideak dibertsoak bezain askotarikoak dira eguneroko bizitza sozialean. Frantziar emazteek, gehiengo adierazgarri bat eginaz, behin eta berriz aitortzen dute, adibidez, ezkon-lagun bezala eurek baino zaharragoa eta handiagoa den norbait desiratzen dutela. Zer adierazten du honek guztiak? Itxuren inbertsioa onartzeak emazteak egoera menderatzen duela pentsatzera eraman bagaitzaie ere, paradoxikoki beheratu egiten duela errealitate soziala: hots, gizon txipituarekin txipitua sentitzen baita. Emazteak honela jarduteak esan nahi du gainerako gizon eta emazteek hauta horretaz duten errepresentazioa eredutzat bizi duela. Unibertsoan (bere taldean) onarturik dauden hautemate-eskemek eta apreziazioek gidatzen uzten duela bere burua.

Soziologikoki jarrera definitu nahirik esan behar da emazteak gizonari buruz duen eredu "tradizional" hau bete beharrezko kontsideratzen dutenen artean nagusiki artisau, merkatari, laborari eta langile munduko emazteak direla. Baita ere ikuspegi hori erortzen

ikusten dela emazteen dependentzia objektiboki jaisten den inguru eta egoeretan. Orduan argi eta garbi dago grina maitalea ez dagoela errepresentazio erromantiko bati loturik; aitzitik, arrazionalitate forma bat dela, zorte sozialaren maitasuna atxikia doala batik bat.

Indar sinbolikoa, bada, zuzenki gorputzaren gainean jarduten duen botere-forma bat litzateke, baina, antolamendu ezarrien gainean sostengatzen da. Inkulkazio edo inkorporazio lanak ezarritako antolamenduak pizten duen zerbait da.

Botere sinbolikoaren magiak menderatzaileen eta menderatuen arteko muga magikoan kokaturik dauden ezagutza eta onarpen ekintzak bultzatzean, zeinak menderatuek beren ezjakintasunean jan ditzaketan, gorputz-emozioen forma —pasioena eta sentimenduena— har dezakete. Eta hala denean, harreman sozial somatizatua, lege inkorporatu bilakaturiko lege soziala, ezin da borondatezko eginahal simple batekin eten, nahiz eta azken hau kontzientzia askatzaile batean oinarriturik egon.

Kanpoko inposamenduak ezerezatuz askatasun formalak lortzen direnean ere autoexklusioa eta “bokazioa” (positiboa bezala negatiboa izan daitekeena) ager daitezke eksklusio espresuaren txanda hartzera. Izan ere botere sinbolikoa behin ere ezin da gertatu jasaten dutenen parte-hartze gabe, eta hori horrelakotzat eraikia delako pairatzen dute.

VI.

Emazteen mendekotasun eta eskusioaren printzipioa, unibertso ooren zatiketa printzipio egiteraino, sistema mitiko-erritualek baietsiz hedatzen dutena, disimetria funtsezkoaren adie-

razpena besterik ez da, hots, subjektuaren eta objektuaren artekoa, diruaren eta lanabesen artekoa, zeina gizon eta emazteen artean aldaketa sinbolikoen lurrian, kapital sinbolikoaren produkzio eta erreprodukziaren harremanetan gauzatzen baita, bere tresna zentrala ezkontza-azoka duelarik.

Intzestuaren tabua zeinetan Levi-Straus-ek gizartearen sorte ekintza ikusten duen, bortxaren erakundetzearekin koerlatibo ere bada, zeren horren bidez emazteak aldaketako eta elkartasuneko subjektu bezala ukatuak baitira, objektuaren mailara baztertuz eta politika maskulinoaren lanabes sinboliko eginaz. Gizonezkoek zeinuak eta aldaketak aktiboki produzitzen dituztenean, berdintasuna ohorean oinarrituz lagun-arerio binomioa elkartzean, desberdintasuna sor dezakeen aldaketa baldintza mugimenduan jartzen dute, hots, menderakotasuna.

Ongi sinbolikoen ekonomiaren pisua, zeinak zatiketa funtsezkoaren printzipioaren bidez, mundu sozialaren hautematea eratzen baitu, aldi berean unibertso sozial guztian inposatzen da, hots, ez bakarrik ekonomi produkzioaren alor ekonomikoan, baizik eta baita erreprodukzio biologikoaren ekonomian ere.

Bestalde, ordena sinbolikoaren beharra birtute egiteak, ohore-jokoa agenteen ekintzen bidez gizartearen funtsera inkorporatuz betikotu nahia dakar (Euskal Herrian bezala hainbat herritan, kapital sinbolikoaren gauzatea den etxea bezalako erakundea edo leinua jarraipenean ikusteko hartzen diren erabakiak daude honen lekuko).

VII.

Birilitateak badu bere alde makurra: bortxarena, alegia; tentsio eta konten-

tzio iraunkorrean ordaina aurkitzen duenez maskulinitate pribilejioa segada ere izan baitaiteke. Izan ere egoera guztietan birilitatea demostratu beharrik absurdora eraman baitezake gizona. Balore maskulinoen goraipamenak bere ordain iluntsutzat feminitatearen beldurrak eta larrialdiak dakartza. Ohore-zaurien haragi direnez, ahulak eta ahuleziaren printzipioak dituztelako ofentsa guztietara irekiak ageri baitira emazteak. Ondorioz dena prest dago birilitatearen ideal inposiblea sekulako zaurigarritasun bilaka dadin.

Kuraia bezala adierazten duguna, bestalde, koldarkeriaren forman errotzen da hainbat bider. Honetaz kontentzitzeko aski da gogoratzea hiltzea, torturatzea eta bortxatzea bezalako ekintzak lortzeko nola birilitate errezeloan ahulezia gabeko gizonen mundutik at jarriaz menderapen, zapalkuntza eta ustiatzeko borondatean sostengatu izan den.

Ikus daitekeenez birilitatea gain-gaienetik nozio errelazionala izanik, norberarekiko eta emazteekiko beldurrez eta gainerako gizonentzat eta emazteen aurka eraikitakoa da.

VIII.

Menderatzaileei propio zaie beren izateko modu partikularra unibertsaltzat onarraraztea. Bikaintasun definizioa, modu guztietan, inplikazio maskulinoz josita dago, nahiz eta horrelakotzat ez agertzeko partikularitatea eduki. Postu baten definizioak, bereziki autoritatea daramanak, sexualki inplikaturiko kapazitate eta gaitasunak dauzka: hainbat eta hainbat postu emazteek okupatzeko zailak badira, aurrez gizonetzkoen neurriekin okupatzeko eginak izan direlako da, hots, gaur egun emazteak direnaren aurka gizonetzkoen birilitatea eraiki

izan delako. Gisa honetan, emazteak postu bat hartzeko orduan postuari dagozkioa aipatzen diren baldintzak eta gainera gizonezkoek horrelako postua okupatzekoan ekartzen dituzten espezifikoak beharko lituzke. Zein liratekeen azken hauek? Handitasun fisikoa, ahotsa, edo eta oldarkortasuna bezalako jarrerak, segurtasuna, rola-erikiko distantzia, autoritate “naturala” deitua, etab.

Beste gisa batera adierazita hau guztia, emazteak neurtzeko erabiltzen diren normek ez daukate inolako unibertsaltasunik. Areago doana da feminismo unibertsalista deituak berak, menderakuntza, edo eta menderatzailearen itxurazko unibertsaltasunari dagokiona ahantziz edo baztertuz, izaki humanoaren definizio unibertsalean emaztearen aurka eraikitako gizon-birilitatearen propietate historikoak ezartzen dituela.

IX.

Norberaren gorputzarekiko harremana ez da agortzen “gorputzaren irudian” hots, eduki dezakegun errepresentazio subjektiboan, *self-esteem*-aren gradu determinatu bati asoziatua denean, zeina esentzialki gorputzaren errepresentazio objektibo baten inguruan eraikia baita. Gisa honetako ereduak ahazten du gorputzaren subjektibo/objektiboaren interakzioan egitura sozial osoa dagoela, interakzioako agenteen eskemetan dauden haute-mate eta apreziazioez landu daitekeena.

Begirada bera ez da objektibazioaren botere unibertsal eta abstraktu ximple bat; aitzitik, botere sinboliko bat da, zeinaren efikazitatea hiru harremanen konbinaziotik baitator: ikusten duenaren, ikusia denaren eta ikusmena aplikatzen zaionaren jokoan jarrita-

ko hautemate eta apreziatio eskemak ezagutu eta onartzen dituen graduen arteko zerikusitik, alegia.

X.

Menderatzaileek ere horrela eraikitako egituraren hertsadurak pairatzen ahal dituztela jakin beharrekoa da; hots, beren menderapenarekin menderatuak gerta daitezkeela. Maskulinitatearen eraikitzailea den lehen ilusia, ezbairik gabe alor derberdinak beren forma espezifikiko guztiekin estaltzen dituen *libido dominandi*-ren fundatzailea ere bada. Horrek eragiten du gizonezkoak (emazteei oposatuz) sozialki eratuta eta prestatuta egotea, haurrak balira bezala, sozialki esleitu zaizkien joko guztietan sartzeko, gerra bera izanik joko horien forma gorena.

Behin ere ez da ahantzi behar gizona azkenik gizon izatera jotzen duen haurra dela. Eta gizonak duen pribilejio espezifikokoaren printzipioan zoramen generiko bat dagoela: gizonak joko sozialak onartzeko hezita daudenez menderakuntzaren edozein forma jotzat edukitzera igaro daitezkeela, alegia. Eta oso gazterik menderatzaile bezala izendatuak eta horretarako *libido dominandi*-z hornituak direnez, bikoitza den pribilejioaz menderapen jokoetara eman daitezke.

Emazteek, euren aldetik, zeharo ukakor den pribilejioa daukate: pribilejioak jokoan jartzen diren jokoetan inozoa ez izatearena, alegia. Egoera horrekiko harrokeria sentitzera ere ailega daitezke, eta "gizon haurrak" gizon izateko daramatzen ahalegin etsituekiko erruki jolasti bat erakustera. Joko serioenetan ere ikuspegi urriko espektadorearen lekua har dezakete, ekaitza urrunetik so eginaz, nahiz eta horrelako jokabidea hartzeak balio diezaikeen txolinez gaitzestea

eta gauza garrantzizkoen interesatze-ko inkapazitate etiketa hartuko. Hala ere gehienetan parte hartzera behar-
tuak sentitzen dira, pairatzen duten menderakuntzaren ondorioz, nahiz eta jokoaz duten informazioa eskasa izan.

XI.

Etorkizunari dagokionean zer egin? Deshistorizazioaren lan historikoaren historia berreraiki behar da, edo nahi bada, iraunkorki betetzen ari den menderakuntza maskulinoaren egitura subjektibo eta objektiboetan birsortze jarraitua egin behar da. Emazteen historiak, lehenik eta behin, etengabe mugitzen ari diren gizarte egituren (Eliza, Estatua, Eskola, etab.) ziurtatzea dakarten agente sozial eta erakundeen historiari erantzun behar dio.

Sexuen arteko harremanen historiaren benetako objektua mekanismo egituren eta euren estrategien konbinaketa jarraituen historia izan behar da; agente partikularren eta erakunde bidez historia luze batean, eta zenbait aldiz itxurazko edo errealtateko aldaketekin sexuen arteko menderapen-harremanen egitura jaso baitute: gizarte industrialaren aitzineko gizarteetan emazteari menderakuntza-lanean aritu beharretik zetorkion; aitzitik, aro industrialeko gizarteetan lanetik at egon beharrak kausatzen dio, alegia.

XII.

Emaztearen askatasun-mugimenduei esker lortuta, bizi dugun aldaketarik nagusiena zera da, gizonen menderakuntza ez dela gehiago berezkoaren ebidentziaz inposatzen. Espazio sozialaren alor desberdinetan aurrerapenak eman badira ere, bereziki apreziagarriak zaizkigu eskola-erakundearen munduan gertatzen ari direnak. Generoen arteko diferentzien errepro-

dukzioa sakonki desorekatu du neskak ikasketa unibertsitarioetara masiboki bideratzeak. Ondorioak ikusten hasita gaude: profesio intelektualetan, administratiboetan edota zerbitzu sinbolikoen salmentan emazteen errepresentazioa nabarmendu egin dela. Baina, arazo berriak ere laster definitu dira. Eskola alorrean berehala aukera desberdintasunak agertu dira. Oro har batxilerra amaitzen duten neskak gainera disdirazko notekin mutilak baino ugariago izanda, hala ere unibertsitatean prestigio gehien duten sekzioetan, hots, jakintza zehatzetan mutilak sartzen dira gehienbat. Logika bera aurkitzen dugu ondorioz profesioen banaketan.

Arrisku bat dago, hau da, gizonak aldaketaren barruan distantzien egitura atxiki dezaketela. Seinalatzen ari garenaren lekuko da jada feminizatu diren guneeetan desbalorizazioa egon dela jakitea. Adibidez, langile espezializatuena saila gehiengo handiz emazte eta inmigratuz osatzen da une honetan.

Gizonen erresistentzien estrategia organizatuak agertu dira dagoeneko: kooptazio operazioen logikaz erakunde sozialeko propietate arraroenak gorde nahirik, noski. Eta *sex ratio*-a politikaren alorrean aplikatzea eskatu den bezain laster, desbalorizazioaren mamua astindu dute.

XIII.

Ongi sinbolikoen ekonomia eta erreproduzioen estrategia dira diferentzien iraunkortasuna atxikitzea ekar dezaketen beste faktore batzuk. Ongi sinbolikoen ekonomian toki funtsezkoa okupatzen du ezkontzak. Nahiz eta ezkontza obligaziotik gero eta as-

keago dirudien sexualitatearen ariketa zilegiak, hala ere ez dezagun ahantz ondarearen transmisioari menderaturik eta bideraturik jarraitzen duela.

Emazteak afera publikoetatik eta bereziki ekonomikoetatik baztertu izan direnean etxeko unibertsoan txertatu izan dituzte: etxean sartuta leinuaren erreproduzio biologikoa eta soziala. Eta nahiz eta garrantzi handikoa izan errealki aktibitate mota hori produkzio ekonomikoaren menpe baloratu izan da. Gaur egun zertan gaude?

Etxeko lan hori gaur egun ere esentziaki ez da ikusten. Eta ikusten delarik errealtatez kanpo epaitzen da espiritualitate, moral eta sentimenduekin nahaspila eginaz, ez lukratibo eta desinteresatu bihurtzen baita. Mundu sozialak ikuspegi maskulinoaz menderatutako ongi sinbolikoen azokak bezala funtzionatzen du: emazteari dagokionean izate bera, gizaki begiak ikusten duen bezala aritzetik datorkio.

Emaztearen izatea erakusten duenaren arabera baldin bada, horrek esplikatu dezake estetikari eta sekduzioari ematen dion garrantzia. Baina, beste behin ere honetatik guztitik onurak datoz nola haurrentzat hala senarentzat. Kasu anitzetan emazteak baitira nola lehenak hala bigarrenak jazerkoan eta apaintzekoan gidatuko dituztenak. Baita ere etxeak eta bizitoki edo lantokiak dekoratuko dituztenak. Eta gaur egun ongi dakigu mediatizazioak daukan garrantzia.

Hala ere, gauza aipagarri bat gertatzen da gai honetan emazteak ez lukratiboki lan egiten duen beste hainbat alorretan bezala. Gizona ezkoak egun batez okupazio horietan sartzen direnean ekonomia produktzaile deklaratu balorazio-labela jartzen dietela.

XIV.

Egiturek duten indarra azpimarratzen ez gara aspertuko, zeren generoak ez baitira sortu berbazko izendatze efektu sinpleen ondorio, aitzitik nola gauzetan (egituretan) hala gorputzetan sendoki itsatsiak daude, eta horrelako izaera dutenez ezin dira nahierara besterik gabe erabili. Generoen ordena baita hitzen efikazitate kausitzailearen funtsa, eta bera da borondate iraultzailearen birdefinizio faltsuki iraultzaileei erresistentzia jartzen diena.

Sexualitatea guk ulertzen dugunez inbentzio historiko bat da, baina, alor desberdinen diferentziaketa-prozesua eta bere logika espezifikoa bete ahal progresiboki bilakatu izan da.

Arrazoi mitikoaren pentsamenduan oposaketa funtsezkoena zen zatiketa sexuatuaren printzipioa mundu-ordena orori aplikatzeari utzi behar izan zitzaion lehenik. Eta gero sexualitatearen sorrerari loturik praktika eta diskurtso sexualen definizio zilegiaren monopoliorako lehiakide izango diren alor eta agenteen agerpenarekin, hots, alor erlijioso, alor juridiko, alor burokratiko eta abarrekin, urrats berri bat emango da.

XV.

Menderakuntza forma bati buruzko azterketa zientifikoaren dibulgazioak baditu, noski, efektu sozialak, baina zentzuz kontrajarriak direnak gerta daitezke. Diskurtso menderatzailea errekuperatzen den hainbatean sinbolikoki bederen menderapena sendotuko du, aldiz biktima direnak mobilizatzeko serbituko duen heinean hura neutralizatzeko balioko du.

Mugimendu feministak ezbairik gabe anitz lagundu du politikoa den edo

politikoa izan daitekeen alorra zabal-tzen, ordura arte baztertuak edo ezezagunak ziren objektuak eta preokupazioak politikoki diskurtsogarri bihurtuz, baina, hori lorturik ere ez da utzi behar alde batera gizarte-maila eta txoko guztietara borroka zabaltzea, zeren gisa horretan sexuen arteko menderakuntzaren harreman sozialak betiketzen jarraituko bailuke. Funtsean, ez zaio autoreari gustuko feminismo batek *sex ratio*-aren borrokan jarrai dezan.

XVI.

Eranskinean aktualitate handiena duen gay eta lesbianen mugimenduaz jardungo du. Giza eta gizarte jakintzen alorrean gaur egun pausa daitezkeen galderarik garrantzizkoenak euretatik sortuak direla dio. Beste edozerk eta edozeinek baino sakonago eta hobeto ageri baitigute menderakuntza sinbolikoaren arazoa. Azalaren kolorea eta feminitatea ez bezala, gorderik egon daitekeen estigma batekin aurkitzen gara, arrazakeria-mota zenbaitetan bezala, kasu honetan ere esistentzia publikoari, ikusi ahal izateari uko egiten baitzaio.

Osatzen duten base sozial guztiak argitara ekarriaz ordena sinboliko menderatzailea itzuliko duen mugimendua eraikitzea litzateke irtenbidea. Erdizkako ibilbideek aterabide definitiborako atzerapena eta sufrimenduen luzapena sortzen baitute. Arazoaren erroetara heldu behar da. Autorearen erradikaltasuna beste behin ere zehaztasun guztiekin agerian dago.

XVII.

Azken hitza gure ohar sinpleez osatuko dugu. Hasteko, liburua hizkuntza soziologiko aski teknifikatuan idatzita

dagoenez ez da erraza irakurtzea. Hala ere, gogoeta itzuli-mitzuli aberastuna da. Antropologia, soziologia eta beste hainbat ezagutza eta jakintza alor ere gurutzatzen ditu. Baina esan behar dugu, Kabiliar gizartea lan-zatiketa eskaseko edo gabeko gizartearen eredu izan badaiteke ere ez dela osoki eredugarri euskal gizartea bezalako eraikuntza kolektibo inkonziientea duenarentzat. Euskaldunok kolektibo inkonziientearen gaia berreskuratze-ko genero-harremanen eraikuntza argitzeko, beharbada Mediterraneoko beste herriek ez duten hizkuntza altxorra baitauekagu. Hizkuntza bene-benetan zaharra dugulako alde batetik, baina, hizkuntza objektuei edo gauzakei dagokienean genero gabea delako, bestetik.

Mundua sexuatua izan dela hastapenean bere osotasunean dioen adierazpena nola esplika daiteke euskararen argitan?

Gaur egungo mugimendu sozialei buruz jardutean mugimendu sozial zaharraren ikuspegia gailentzen zaio. Aldaketa bururaino eraman behar dela onarturik ere, jokabide erlatiboak kontuan hartu behar direla esango genioke. Politikan ez da egoera lasterren eta osokien irensten duena hoberen errotzen. Eztabaida sakon eta luzeko gaia litzateke. Bego oraingoz ohar hau dagoenean.

Jokin Apalategi